

HUHEZI aztertzen ari da Ikus-entzunezko komunikazioa Aretxabaletara eramatea

2009/06/29

Mondragon Unibertsitatea eta Aretxabaletako Udala aztertzen ari dira zer aukera dauden 2011-2012 ikasturtean Ikus-entzunezko komunikazioa (IKO) ikasketak Aretxabaletara eramateko, Tubos izeneko esparrura, Bedarretako San Migel auzoan. Hara joatekotan, IKO kokatuko litzateke eraikin zaharrean, "Bergara Jaure Resusta y CIA" enpresa zegoen lekuan.

Arrazoi nagusia Ikus-entzunezko komunikazioa Aretxabaletara eramateko da **HUHEZI asko hazi dela azken urteotan**, eta dagoeneko nekez sartzen direlako denak Eskoriatzan. Hori horrela, Aretxabaletako kontua sortu zen, eta bai karrerako arduradunek eta baita fakultatekoek zein unibertsitatekoek ere ikusi zuten **abagune egokia zela Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasketak sendotzeko**, instalazio berriek aukera gehiago eta hobeak eskainiko dituelako.

Aretxabaletan **azpiegitura hobeak** egongo lirateke, eta **espazioa ere gehiago**. Gainera, HUHEZiren barruan bada ere, campus berriak aukera eskainiko lioke IKOri bere nortasun propioa garatzeko. Era berean, horri esker Mondragon Unibertsitatea gehiago errotuko da bailaran.



Aretxabaletako
Udala
